



Intxixuko Hezkuntza Proiektuari buruzko hainbat ezaugarri

- 1.- Guraso eta tutorearen arteko lotura
- 2.- Gurasoen partehartze maila
- 3.- Urteroko proiektu bereziak
- 4.- Arazoak dituzten umeen trataera
- 5.- Egonaldiak eta bestelako irteerak
- 6.- Jaiak
- 7.- Eskola orduz kanpoko ekintzak
- 8.- Liburutegia

1.- Guraso eta tutorearen arteko lotura.

Ikasturte hasieran irakasle bakoitzak batzar orokor bat antolatzen du, non gelarako oinarriko helburuak, metodologia eta arauak aurkezten dituen.

Bi eta hiru urtekoen kasuan, lehenengoz eskolatzen direnez gero, kurtsoa hasi aurretik, irakasle, zuzendaritza eta Guraso Elkarteko ordezkari batzuk guraso berriekin biltzen dira, talde horri buruzko informazio berezia jakinarazteko (jarrerak, urterako beharrianak...).

Bestaldetik, urria aldera gelako batzar orokorraz gain, kurtsoan zehar, irakaslearekin banan banako batzarrak antolatzen dira, ume bakoitzaren egokitze eta apendizai prozesua aztertzeko.

Honetaz aparte, beharrezkoa ikusten duzuenean, zuen umearen tutorearekin hitz egiteko aukera daukazue, sor daitezkeen arazoei konponbide arina emateko.

2.- Gurasoen partehartze maila.

Gurasoek, baduzue proiektuan zeresanik. Honetarako bide batzuk dituzue zabalik, hala nola:

- **Gelako arduraduna.** Talde bakoitzeko guraso bat da. Gelako kezkak eta proposamenak pertsona honen bidez tutoreari edota guraso elkarteari aurkezten zaizkio.
- **Guraso Elkarte.** Talde honetan ikastolako edonor egon daiteke eta ordezkarien bidez Eskola Kontseiluan ere, zuzenean parte hartuko dute. Zereginak desberdinak dira: eskola orduz kanpoko ekintzen antolaketa, ikastolan egiten diren jaietan laguntza eskaintzea...
- **Asanblada.** Bertan guraso guztiek zuzenean parte har dezakete, ikastolako erabaki nagusiak batzar horretan eztabaidatzen baitira.

3. Urteroko proiektu bereziak.

Urtero parte hartzen dugu, aukera ematen diguten proiektu berezietan. Hala nola:

- Bertsolaritza:
Teknika ikasteaz gain, ikasitakoa praktikan jartzen dute hainbat ekitalditan parte hartuz (ikastetxeen arteko elkartrukeak. . .).
- Eskola baratza tailerra.
- Eskola lorategia
- Agenda 21.
- Ikastolatik euskara bultzatuz proiektua (Olentzeroa, Agate Deuna, Inauteria...).
- Elkarbizitza proiektua
- Kalitatea hezkuntzan proiektua

Hezkuntza Proiektuaren berezitasunak

- ✓ Intxixu ikastola, ikastetxe eleanitza izendatua izan da. Horren ondorioz, ingelesaren irakaskuntza 4 urtetik hasten dugu.
- ✓ 4 urtetik musika eta 1. mailatik gorputz-hezkuntza arloak espezialistek ematen dituzte.
- ✓ Hizkuntz Normalkuntza Proiektua ikastolako eremu guztietan euskararen erabilera, motibazioa eta jarrera indartzeko.
- ✓ Agenda 21: Ingurumena ardatza duen proiektua da. Udala eta CEIDArekin koordinatzen da jasangarritasunaren ikuspegitik alor ezberdinetan hobetzeko.

✓Hizkuntzen trataera bateratua eta ikerketa etengabea hizkuntzak lantzeko metodorik eragingarrienak bilatuz.

✓Ikastola osatzen dugun guztioi zabalik dagoen hezkuntza proiektu partehartzailea.

4.- Arazoak dituzten umeen trataera

Ume bakoitzak berezko ezaugarri eta garapen erritmo ditu bere ikasketa prozesuan. Ezaugarri horiek kontuan hartu nahian ikastetxeak errekurtso ezberdinak ditu prozesu horretan azal daitezkeen arazoei aurre egiteko:

- Irakasle aholkularia (pedagogoa).
- Logopeda.
- Pedagogi terapeutikoan espezialista
- Diziplina anitzeko taldea (BERRITZEGUNEA).

5.- Egonaldiak eta bestelako irteerak

Gure proiektuaren barruan eta euskara eta kultura indartzeko asmoz, ikasturtean zehar bi motatako irteerak antolatzen ditugu:

1. Euskara bultzatzeko ekimenak. Haur Hezkuntzako 5 urtetik aurrera egiten dira (Baseri eskola).

Honelako egonaldien helburu nagusiak hauek dira:

- Euskara eremu zabalago batetan bizitzeko aukera izatea. Euskara, beraien ingurugiro naturala ez den beste leku baten bizitzea.

- Umeen arteko eta baita irakasle umeen arteko harremana sendotzea.

2. Ekimen osagarriak. Ziklo bakoitzak urtean zehar irtenaldi didaktiko ezberdinak antolatzen ditu: txotxongiloak, antzerkiak, zinema, museoak eta beste bisitaldi gidatuak.

6.- Jantoki zerbitzua

Puntu interesgarriak

- 2, 3 eta 4 urteko ikasleek, loaldia egiteko aukera daukate jatekoa amaitu ondoren.
- 2 eta 3 urteko umeei eurentzako aparteko jantokia daukate.
- Ikasle hauei, zelan bazkaldu duten eta egin duten loaldiaren zenbatekoa zehaztuz jarraipen orria banatzen zaie egunero. Gainontzekoei astero (4 eta 5 urte) eta hilero.

- Jantokia, egun aldakorretan erabiltzeko aukera badago. Honetarako ticketak erosten dira.
- Tinko edo extra modura jantokia erabiltzen duten ikasleek ordaindu behar dutena Eusko Jaurlaritzak zehazten du ikasturte hasieran.
- Kudeaketa zuzeneko jantokia. Eusko Jaurlaritzaren eta Bilboko Udaletxeko eskola osasun taldearen kontrolpean.

7.-Eskolaz kanpoko ekintzak.

- Euskal dantzak
- Musika-hezkuntzako tailerra, 3 urtetik gorakoentzat.
- Musika-tresnen aukerak: gitarra, pianoa, txistua, trikitixa, biolina
- Kirol-anitza
- Margo tailerra
- Karatea
- Saski baloia
- Esku-pilota
- Gimnasia erritmikoa
- Atletismoa
- Xakea

Helduentzat:

- Guraso Eskolak
- Euskal dantzak

8.- Liburutegia

Ikastetxeko irakasle batek gidatua ACEX delako programa barruan, irakur zaletasuna pizteko bai gela barruko programazioan txertatuta zein eskola orduz kanpoko ordutegian (jantoki orduan eta arratsaldean 16:30/18:30).